



**2016KO UZTAILAREN 15EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko uztailaren hamamostean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez hone-tarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko uztailaren 1ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 55 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMAR MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMASEI EURO ETA BAT ZENTIMO (30.856,01 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- KIROLDEGIKO BEHE SOLAIRUKO ALDAGELAK BIRMOLDATZEKO LANEN EGIAZTA-GIRI-LIKIDAZIOA.-

Kiroldegiko behe solairuan aldagelak egite lanen obra zuzendaritza daraman udal arkitekto teknikoak, lanen likidazio-egiaztagiria luzatu du. Lanen likidazio honen zenbate-koa, BEZ barne, HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HA-MAHIRU EURO ETA LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (73.933,87 €) takoa da.

Lan hauek Barandiaran Zeramikak S.L.k egin ditu.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, egiaztagiri-likidazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- KONTRATAZIO ZENTRALAREN BIDEZ BIZITZA ETA ASEGUAREN KONTRATAZIOA-RI ATXIKIPENA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakin arazi du, bizitza eta istripuen aseguria zerbitzua kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordio-aren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxo-aren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzar-mena onartu zuela.



Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabakitzen du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez bizi eta istripuen aseguru zerbitzua kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-08 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea 2016ko ekainaren 20tik aurrera, astean 5 ordutik 8 ordura, laguntza handiagoa behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuen %24a izango da.
- 14-11-04 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2016ko uztailaren 1etik aurrera, astean 2 orduko etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuen %35a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 16-01-007 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea maiatzetik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntza ematea maiatzetik abendura. Eskatutakoaren %100 da.
- 16-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 55,5 €ko diru laguntza ematea ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %60 da.
- 16-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 83,25 €ko diru laguntza ematea ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %90 da.
- 16-01-010 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako ordainketa bakarreko 241,9€ko diru laguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %51 da.
- 15-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze eta alokairu gastuetarako laguntzatik bajan ematea, uztaileko hilabetetik, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa jasotzeko eskubidea izateagatik.

Karitas.-

Lazkaoko Karitas Elkarteari bostehun (500 €) euroko diru laguntza ematea, zailtasunak dituzten haurrei laguntza akademikoa emateko.



VI.- HEZKUNTZA ETA KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Hezkuntza Batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko hiru boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta bi abstentzioz (EH Bildu), honako erabaki hau hartzen du:

Lazkao Txiki Musika Eskola.-

2016ko udal aurrekontuetan izendatutako diru laguntzaren bigarren erdia ematea. Bigarren erdi hau hogeita bost mila (25.000 €) euro da.

Bestalde Alkateak esaten du Beneditarren Fundazioa udala patronoa den fundazioa izanik eta fundazioaren gastuei aurre egiteko izenpetuta dagoen hitzarmenaren baitan eta horretarako udal aurrekontuan dirua jarrita dagoela kontuan izanda, urte guztirako jarrita dagoen zenbatekoaren bigarren erdia ordaintzea proposatzen duela. Honen aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, horako erabaki hau hartzen du:

Beneditarren Fundazioa.-

2016ko ekarpenaren bigarren zatia ematea. Bigarren zatia hamar mila (10.000 €) euro da.

VII.- PARTE HARTZEKO DIRU LAGUNTZAK .-

Parte hartze batzordearen proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez honako erabaki hau hartzen du:

Aloña Galarraga.-

Urtean zehar parte hartzea sustatzeko antolatutako hitzaldi eta ekitaldiengatik, hiru mila (3.000 €) euroko diru laguntza onartzea.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) piboteei buruz galdetzen du eta alkateak eskatutakoa erantzunez errepidea eta bide gorria bereizteko piboteen inguruan zer egiten ari denaren argibideak ematen dizkio.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

